

## ABIZENAK

**ETXARRI:** Naparroa osoan Etxarri-Aranazetik urtenda. Logroñon be badago. Gipuzkoan be zabal. (1698)  
“Etxaberri”ren laburpena da eta katalanen edo galiziarren “Casanova”gaz batera doa.

\*\*\*

**ETXEGARAI:** Gipuzkoa'n eta Naparroa'n zabal dabil eta Bizkaian be ugari, bear ba'da artzaiñak Gipuzkoa'tik ekarrita. Etxea baiño gorago dagon lurraldea litzake. (Donosti-1641)

\*\*\*

**ETXEGUREN:** Aiala-aldean sortua eta andik zabaldu da. (1523)  
“-guren” gorengoa esan nai dau: Eguen Guren, Landaguren... Orrelan ba, “etxe guztien artean gorengoa” esan gura dau.

\*\*\*

**ETXENAGUSIA:** Gipuzkoar askok daroe abizen au eta Bizkaia'n Meñakan izan da 1770n. urtean. “Etxerik aundiena” esan gura dau.

\*\*\*

**ETXEZARRAGA:** Igorren agertua da eta gero Bilbao'ra be zabaldua.  
“Etxe zarra dagon lekua” esan nai dau. (Bilbao-1741)

\*\*\*

**EGAÑA:** Aizarnan dagoz izen au daroen etxe bi, Garaikoa ta Azpikoa. (Aizarna-1646).  
Jatorriko itza “Egigaiña” da eta aldapa baten gainean dagoana esan nai dau.

\*\*\*

**EGIA:** Abizen oso zabaldua da: Bizkaia'n Arratia'n eta Mungia'n eta Gipuzkoa'n Azpeitia'n, Legorreta'n eta Amezketa'n eta Araba'n. Kanpetzu'n, Aiala'n eta Zigoitia'n. (Zumarraga 1470)  
Mendi-gaiñeko lerroa edo mendi-aldapa izan leiteke.

\*\*\*

**EGIAGARAI:** Aldapearen gainean dagon etxea edo lekua esan gura dau.

\*\*\*

**EGIGUREN:** “Egia” aldapa da eta “guren” gorengoa, biak alkartu ezker, aldapa guztien artean gorengoa. (Eibar-1589)

Bizkai'ko Markiña-aldetik urten eban eta Eibar-aldera be sartu da.

\*\*\*

**EGILAZ:** Aldapa latza da adierazpena. Bilbao'n eta Tolosa-aldean agertzen dira lenengoak. (1454)

\*\*\*

**EGILUZ:** “Egilaz”en ordeaz artzen da eta Bizkai'ko Lezama'n da zarra, gero Araba'n eta Gipuzkoa'n. (1454)  
Aldapa luzea edo mendi-kate luzea esan gura dau.

\*\*\*

**EGILEOR:** Mungialdean agertu zan baiña Araba-aldean be ba-dago. (Isasti 1625)  
Aldapa sikua esan gura dau.

\*\*\*

**EGINO:** “Egi”tik etorria danean, egi edo aldapa txikia esan gura dau, baiña agino'ren aldakuntza be izan leiteke eta orduan zugatz bat, agiña, erderaz tejo esan gura dau eta “-o-” toki-atzizkia da. Agiña dagoan tokia. Ortik etorria da Frantziako “Agen” erria. (1587)

\*\*\*

**EGUREN:** Egiguren'en laburpena da eta gorengo mendi-muñoa edo aldapa esan nai dau. (1622)  
Lenengo Bilbao'n agertzen da. Gero Elorrio'n eta Gipuzkoa'n be bai.

\*\*\*

**EGUSKIZA:** Fika'n dago izen au dauan etxe bat, antxiñakoa, baiña idazkietan Ernani'tik asi eta Gipuzkoa'n agertzen da. Aramaio'n be bai. (Gabiria-1462)  
Eguzkia ugari dagon lekua da.

\*\*\*

**EIZAGIRRE:** Lazkao'n asten da eta Gipuzkoa'ra zabaldu. Gero Kolonia'n be bai. (Zestona-1389)  
“Eiza” “aize”tik sortua da eta “Agirre” agirian dagoana eta abereentzat bedar-lekua. “Aizetan dagoan abere-barrutia”.

\*\*\*

**EIZMENDI:** Astesu'tik Azpeitia'ra 1625n. urtean, gero Berriatu'ra eta Naparroa'ra.  
Aizea dagon mendia edo eiza dagoana izan leiteke.

\*\*\*

**ELKANO:** Getaria'tik Gipuzkoa'ra.  
“Elge” edo “elka” lur landua da eta “-no” txiki-atzizkia. (1523)

\*\*\*

**ELKORO:** Bergaratik urtena da. (1728)  
“Elge” edo “elka” lur landua da eta “-oro” toki-atzizkia.

\*\*\*

**ELEIZALDE:** Tolosa'tik urten eta Gipuzkoa osoan. (1594)  
Eleizearen ondoan dagoan tokia edo etxea da.

\*\*\*